

# 1881

## Bruneten


### mapa

Egileak berak esaten duen legez mapa 1881ean egindakoa da, baina agertzen den Lekeitio mende hasierakoa da (Croquis de Lequeitio donde despues de mi niñez no estuve mas que unos dias en Navidad de 1821 -hace sesenta años!... lo hago para que Ramon vea si tengo memoria de localidades-). Hori da bere meritua, buruz ari dela marrazten bere txikitako Lekeitio. Brunetdarrak Katalunian zuten jatorria eta aita Manuel noizbait XVIII. mende erdialdean Donostiarra joan zen eta han geratu zen. Merkatari arrakastatsuak eta ospetsuak bihurtu ziren, baina frantsesak Independentzia gerran Donostiarra sartu zirenean Jose Brunet Segura eta anaia Francisco Lekeitiora etorri ziren. Se-me-alaba bat baino gehiago jaio zen Lekeition (Dokuklik-en 8 ageri dira), baina gerra amaitu ostean Donostiarra bueltatu ziren. Koadroak atzeko aldean hurrengo hau dakar:

“Plano de Lequeitio, dibujado de memoria por Don Jose Manuel de Brunet y Prat, en 1881. Dicho Señor vivió en Lequeitio entre los años 1808 y 1814. Nació en San Sebastian en 1806. Desde el (sic) Atalaya de Lequeitio, presenció el incendio de San Sebastian el 31 de Agosto de 1813 y días sucesivos”.

Jose Manuel Brunet hori merkatari eta politiko liberal ospetsua izan zen, mapak marrazten, tira... Esan bezala krokisa 1881 aldekoa da (1821+60), baina mende hasierako Lekeitio marrazten du autoreak. Txiki-txikitan bizi izandako urteak eta 1821ean egon zeneko egun apurrik nahikoak izan zituen krokisa marrazteko. Horregatik, zuhurrak izan behar dugu eta kontuan izan memoria beti ez dela fidagarria izaten. Hala ere, krokis ederra da, informazioz betea.

Ez gara luzatuko azalpenetan, aterako diogu probetxua bere sasoian!




José María Arriolaren liburutegia

Crónicas de Logroño desde la época de  
los Reyes no tienen más que una descripción  
histórica en 1821 - bien somera más!

to haga que que Remueca venga inmediatamente a localizarse...

Pedir que lo hagan dentro de su jurisdicción, para que no sea ilegal; pero  
yo lo interviendré -



Elexateako errebaletik hasiko gara. Hemen Brunetek honako hauek marraztu eta aipatu zituen: elizako dorrea (**torre**), Elexateako atea (**aqui un arco**), etxeak (**casas**), kampo-santua (**creo que aqui habia un camposanto**) eta tontor gainera igoteko gaur egun ere erabiltzen den bidexka (**súbida al castillo eta no tengo presentes los caminos para llegar hasta el castillo**). Ez zen erraza gora heltzea itsaso aldetik (**esta falda del castillo es muy pronunciada**). Castillo deituko dio Lumentxa gainean zegoen fuerteari (**este es el castillo**). Bera Lekeitio bizi izan zenean, eliza alboko Iturraspe etxea Unzeta tarrena zen (**huerta eta casa de Unceta**). Geroago Uribarrenek erosi eta palazioa altxatu zuen (**por aqui me han dicho que está la casa de Uribarren ó Abaroa**). Haren goiko aldetik bidea zohoan (**camino vecinal**). Unzeta tarren etxe azpian ontziak egiten ziren (**aqui he visto construir chalupas de pesca**). Eta haratzago haitzak zeuden (**peñas**). Haitz horiek kendu eta parkea egiteko Uribarrenek dezente polbora eta diru gastatu zituen. Beherago Isuntza hondartza zegoen (**este es el arenal ó playa donde se toman los baños de mar eta pleamar ordinaria**). Eta hondartzan, zelan ez, Aittitta Makurra (**peña llamada Achicamocordo**). Islako moila ere marraztu zuen (**arrecife de peñascos echados para contener el rio- llega hasta la isla de San Nicolas**), baita Mendieta ontziola pareko moila ere (**murallon de Ysunza eta las aguas vivas destruian este murallon**). Inguru horretan zegoen eta dago Zubia (**punte de Ysunza eta de un solo arco por debajo del cual pasan quechemarines**). Isuntza amaierako harresitxo eta zubiaren artean beste hondartza bat (**arenal**). Erreka ere marraztu zuen (**rio**) eta ezker aldean mendi, Likularra, nahiz eta izen hori erabili ez (**este es un monte elevado en el que las tropas del Pastor con ayuda de los ingleses pusieron dos cañones que en 1812 hicieron rendir la guarnicion del castillo y pueblo.- El jefe francés estaba alojado en nuestra casa y aunque yo no tenía mas que 6 años tengo presentes aquellos cañonazos**). Errekan behera eginda Karraspio hondartza (**este arenal creo se llama de Carraspio, pleamar, bajamar eta la mar**) eta irla (**por aqui se podia pasar a la isla en baja mar, limite de la baja mar** **eta aqui corresponde estar la isla a donde se llegaba a pie en baja mar**).

Lumentxako beste aldean zegoen Zubietako jauregia marrazteko paperik barik gelditu zen (**porque me ha faltado papel pongo en el otro lado lo que recuerdo de la situación del palacio de Zubieto**).

Uriarte auzoan Dominiken komentua (**Convento de monjas eta praderita**), Uriarte jauregia (**casa de la brigadiera eta creo es del conde de Hervias**) eta kale aldapatsua (**cuesta eta cuesta**) marraztu zituen. Behekoaldean, orduan Ibañez

de la Renteriarren zen eliza aurreko etxea (**casa eta donde vivio Echaguë**).

Dendari kalea (**calle en cuesta eta calle y camino para Zubieto y la Magdalena**) eta amaieran Ateako atea (**arco**) marraztu zituen. Goiko aldean Uriarte dorretik Dendarirantz zohoan eta doan bidexka (**aqui habia un callejon de tapias de huertas eta no recuerdo bien esta parte**). Beheko kalerik ez da ageri.

Gamarra plaza (**plaza de verdura ó mercado**) eta han zegoen Ibañez de la Renteriarren etxe bat, gaur egun Gamarra enparantza 1eko jauregia altxatzen da haren gainean, (**de Renteria**) eta Gernikarantz doan bidea (**de esto no me acuerdo eta creo que por aqui habia un fuente**) ageri dira.

Beherago plaza nagusi inguruan, Guzurmendi plaza (**plazuela mas elevada que el juego de pelota**), Zamoratarren etxea, gaur egun Gamarra 4 (**Zamora**) eta Sagastitarrena, gaur egun Gamarra 2 (**de Sagasti**). Haren aurrean Udaletxea (**casa de la villa**). Beheko aldean, plaza (**plaza**), arbola eta guzti (**me han dicho que ahora hay arboles aqui**) eta frontoia (**juego de pelota mas bajo que la plazuela**). Plaza horren beheko aldean, harresia (**murallon de la plaza**).


Eliza (**Yglesia**), haren fatxadan eskailerak (**escaleras en bajada**), atzeko aldean hezurtokia (**osario**) eta plaza aldean sarrera eta elizapea (**entrada a la iglesia eta atrio cubierto**). Kanpoan elorria (**espino**). Elizaren fatxada aurreko plazatxoa (**pradera en cuesta**) eta gaur egun Abaroa kalea den ingurua ere, zelaiak ziren (**esta era una pradera**).

Apalloa kaleak (**calle que esta un poco en cuesta**) Konpai-niako auzora eramango gaitu (**Yglesia que se llama de la Compañía eta aqui habia una escuela que se quemó en 1813 ó 14. Recuerdo el incendio**). Kale horretan agertzen da Oxangoitarren etxe bat (**casa de Ojangoiti**). Kale horretatik jarraitu eta Piedadeko ermitara heltzen da (**hermita**). Handik ezkerretara eginez Ispasterreko bidea (**camino a Gardata**) eta eskumatara Santa Katalinara (**camino ó paseo a Santa Catalina**). Inguru horretan mahastiak (**viñas**).

Uribarria kalea jaten du, ez du ondo gogoratzen gune hori (**no tengo presente lo que habia en lo interior de estas manzanas de casas**).

Arranegi kalean (**calle de Arranegui**), gaur egunko Arranegi 6an, Goikoleatarren etxea (**casa de Goicolea**) eta etxe horren aurrean, plaza bazterrean, zaborrak (**escombros**). Arranegitik jarraitu, San Nicolas Tolentino edo Piperren portalea (**arco**) pasatu eta segidan eurak bizi izan ziren eraikina, gaur egungo Arranegi 7an (**aqui habitó al principio nuestra familia**). Aurrez aurre Adan de Yarzatarren dorrea (**casa de Adan**) eta hondartzako jaitsiera (**bajada**).

Intxaurrondo kalean aipatzen duen etxe bakarra Agirre-



Archivo de la casa de Churruca, condes de Motrico, 1827.  
Expediente de nobleza e hidalgía de D. José y D. Francisco Brunet.  
Dokuklik webgunea.

solartetarrena da (la casa de la madre de Aguirre Solarte). Bergara kalea eta Atxabal kalea ez ditu izendatzen, baina egon badaude.

Arranegiko zabalaren hasieran eskoila (escuela) eta hondatzara bajatze-ko jaitsiera (bajada al arenal). Moilara pasatzeko korridorea ere aipatzen du (por aqui habia corredor al muelle). Seguruenik Tronpaperi buruz ari da. Narea kalerik ez da agertzen, eta plaza amaieran ate bat marrazten du, baina ez dio arco hitzak laguntzen.

Kolmenares kalean (camino para las viñas) ortuak ageri dira (huerta del Señor Colmenares eta huerta que tuvieron nuestros padres). Ezpeleta kale hasieran Likona dorrea (Señor Colmenares) eta amaieran talaiarako bidea (camino para las viñas, atalaya eta en esta atalaya, se cayó José María al tirar una piedra y tomó un golpe en la frente, señal que le quedó toda su vida).

Amaitzeko portua (muelle para lanchas y cachemarines) eta moilak (muelle eta aqui habia un muelle empezado á construir). Portu kanpoan haitzak (aqui suele haber rompientes que imposibilitan la salida al mar).

Beste esku bat ere ibili zen krokis honetan, bazterrak nahastatzen. Arkatzez egin zituen bere apuntetxoak. Zubia marraztu zuen (puente del puente de Yzuza de un solo arco), Unzetatarren etxea ere handitu edo mugitu egin zuen, portua handitu eta lekuz aldatu zuen eta Arranegian beste ate bat sartu zuen (arco) eta, ondo irakurtzen badut, Colmenaresen etxea ere tokiz aldatu zuen (casa de Colmenares). Nire ustez, beste honek ez zuen ondo interpretatu Bruneten krokisa, baliteke kaleren bat falta delako.



José María Arriolaren liburutegia